



GOBERNU BATZARRA

2025.03.18

Alkatea:

Angel Martinez de Rituerto Arregi

Bertaratutako zinegotziak:

Kristina Pelaez Errazkin

Ander Figuerido Zubiria

Aitor Agirresarobe Murgi

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko martxoaren hemezortzian, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

Ez dira bertaratu:

Estitxu Kortejarena Ugarte

Goiuri Ezeiza Arandia

1. Akta hau onartzea: 2025eko otsailaren 25ekoa.

2. Onartzea Construcciones Amenabar SA-ri Euskal Herria plazako 1 – B eraikinean (Topic) ekipamendu-eszenikoa egiteko obren kontratua betetzeko erantzukizunari aurre egiteko jarritako abalak itzultzea.

Idazkari akzidentala:

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

3. Dekretu hauen berri ematea:

2025/477 Dekretua: 2024/76 faktura zerrendak.

2025/561 Dekretua: 2024/77 faktura zerrendak.

2025/551 Dekretua: 2024/78 faktura zerrendak.

2025/563 Dekretua: 2024/79 faktura zerrendak.

2025/525 Dekretua: 2024/80 faktura zerrendak.

2025/665 Dekretua: 2024/81 faktura zerrendak.

2025/677 Dekretua: 2024/82 faktura zerrendak.

2025/685 Dekretua: 2025/2 faktura zerrendak.

2024/1933 Dekretua: 2025/3 faktura zerrendak.

Kontu-hartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso



1. AKTA HAU ONARTZEA: 2025EKO OTSAILAREN 25EKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA CONSTRUCCIONES AMENABAR SA-RI EUSKAL HERRIA PLAZAKO 1-B ERAIKINEAN (TOPIC) EKI-PAMENDU-ESZENIKOA EGITEKO OBREN KONTRATUA BETETZEKO ERANTZUKIZUNARI AURRE EGITEKO JARRITAKO ABALAK ITZULTZEA.

I.- AURREKARIAK:

- 2009ko ekainaren 1ean, Tolosako Udalak eta Construcciones Amenabarrek Euskal Herria plazako 1-B eraikinean (Topic) ekipamendu-eszenikoa egiteko obraren kontratua sinatu zuten.
- 2010eko martxoaren 26an, Euskal Herria plazako 1-B eraikinean (Topic) ekipamendu-eszenikoa egiteko obretako jasotze akta sinatu zen Construcciones Amenabar SA enpresa eta Tolosako Udalaren artean.
Akta horretan jasotzen zen moduan, obretako bermea 3 urtetakoa zen.
- 2017ko ekainaren 5ean ondorengo bermea itzultzeko eskatu zuen Construcciones Amenabar SA enpresak:
 - Euskal Herria plazako 1-B eraikinean (Topic) ekipamendu-eszenikoa egiteko obrak behar bezela beteko direla bermatzeko fidantza, 42.234,26 €-koa.
- 2017ko uztailaren 17an, eskatutako abalak itzuli aurretik, zenbait puntu konpontzeko zeudela esan zitzaion, zehazki:

1.- Eskaladorea: Hasiera batetik eskaladoreak arazoak eman zituen. Hori ikusirik, fabrikatzaileak aldatu egin zuen, baina arazoak ez ziren konpondu. Gaur egun erretiratura du fabrikatzaile horrek, konpontzeko asmoarekin. Behin betiko soluzio bat eman beharko zaio arazoari.

2.- Zirkuitiak: Antzezlekuko audioko elementuak zirkuitu berezi bat osatu beharko dute. Gaur egun argiteria-zirkuitu baten barruan daude eta horrek arazoak sortzen ditu.



- 2024ko irailaren 10ean bermea itzultzeko eskatu zuen berriro Construcciones Amenabar SA enpresak.

II.- AZTERKETA TEKNIKO:

II.1.- Xedea

Txosten honen xedea da honakoa aztertzea: aipatutako obra- erantzunkizunari aurre egiteko jarritako abalak itzultzeko eskaera.

II.2.- Jarritako bermeak

Eskatzen diren abalaren datuak honakoak dira:

Euskal Herria plazako 1-B eraikinean (Topic) ekipamendu-eszenikoa egiteko obrak.

Construcciones Amenabar, S.A.

Abalaren zenbakia: 2009022634

Abalaren zenbatekoa: 42.234,26 €

Alta eguna: 2009/04/06

II.3.- Azterketa

2017an abalaren itzulketa ukatu zitzaion, aurretik bi konponketa egin behar zituelako. Udalak ez du lan horien jarraipenik egin, eta urte hauetan guztietan Topiceko agertokia erabiltzen jarraitu da.

Hamabost urtez ez da jarritako abala exekutatu; hori Construcciones Amenabarrek eskainitako bermearen hiru urteko epean exekutatu behar zen arren.

Azaldutakoa ikusita, eta berme-epea amaituta, ez da bidezkoa Construcciones Amenabar S.A. jarritako abalak oraindik mantentzea, Euskal Herria plazako 1-B eraikinean (Topic) ekipamendu-eszenikoa egiteko obrei dagokiona, eta itzultzea egokitzen jotzen da.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



ERABAKI DU

LEHENA.- Construcciones Amenabar SA-ri Euskal Herria plazako 1-B eraikinean (Topic) ekipamendu-eszenikoa egiteko obren kontratua betetzeko erantzunkizunari aurre egiteko jarritako abalak itzultzea.

Abalaren datuak honakoak dira:

Euskal Herria plazako 1-B eraikinean (Topic) ekipamendu-eszenikoa egiteko obrak.

Construcciones Amenabar, S.A.

Abalaren zenbakia: 2009022634

Abalaren zenbatekoa: 42.234,26 €

Alta eguna: 2009/04/06

BIGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Construcciones Amenabar, S.A.-ri eta kontuhartzailetza departamentuari berri ematea.

3. **DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:**

2025/477 Dekretua: 2024/76 faktura zerrendak.

2025KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailetza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

76. zenbaki duena, 89.262,97 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

76. zenbaki duena, 89.262,97 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.



Bestela, birjarpen errekursoaren orde, edo errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsu hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2025/561 Dekretua: 2024/77 faktura zerrendak.

2025KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailatza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.



Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

77. zenbaki duena, 4.624,76 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

77. zenbaki duena, 4.624,76 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.



TOLOSAKO
UDALA

2025IGBA0005

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2025/551 Dekretua: 2024/78 faktura zerrendak

2025KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

ESKU0238f44b-c570-412e-9dc6-8b226267a492



Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

78. zenbaki duena, 92,79 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

78. zenbaki duena, 92,79 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren ordeztu, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.



TOLOSAKO
UDALA

2025IGBA0005

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2025/563 Dekretua: 2024/79 faktura zerrendak.

2025KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailatza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

ESKU0238f44b-c570-412e-9dc6-8b226267a492



Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

79. zenbaki duena, 5.873,83 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

79. zenbaki duena, 5.873,83 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsu hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsua aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsuaren orde, edo errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsu hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.



Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2025/525 Dekretua: 2024/80 faktura zerrendak.

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin

IKUSIRIK

Peñascal S.L kooperatibak honako fakturak aurkeztu dizkio Tolosako Udalari 2024 urtean zehar emandako zerbitzua ordaindu dezan:

- 2024-FAKT-001901-00 2024/04/19koa
- 2024-FAKT-003186-00 2024/07/01ekoa
- 2024-FAKT-004637-00 2024/10/01ekoa
- 2025-FAKT-000061-00 2025/01/07koa

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Kontuhartzailatza Sailak honako txostena eman du:
<<EGINKIZUN KONTU-HARTZAILEA EZ BETETZEAREN TOXSTENA, ONARPEN EDO ORDAINKETA FASEAREN KONTU-HARTZAILEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKOA>>



TXOSTENA	29/2025
ESPEDIENTEAREN IDENTIFIKAZIOA	2025SCME0003 PEÑASCAL, S.COOP
ESPEDIENTE MOTA	KONTRATAZIOA
EXEKUZIO FASEA	ADO
ZENBATEKOA	5.808,00 €
AURREKONTU APLIKAZIOA	0500.226.99.231.00 2024 (RCT-5768/2024)
ORGANO KUDEATZAILEA	GIZARTE ZERBITZUAK

Txosten horrek zera jasotzen du:

<< c) Prestazioak egin direla eta prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela egiaztatzea:
Saileko arduradunak txosten bat egin beharko du, egiaztatuz, prestazioak egin
direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela.>>

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Tolosako Udala eta Tolosaldeko beste udal batzuk 2015-2016 urteetan antolatu egin ziren laguntza-produktuen udal-zerbitzua elkarlanean eskaintzeko, eta horrela, forma eta duintasuna eman zioten modu prekarioan eta bakoitzak bere modura ematen zuen behin-behineko zerbitzu bati: herritarrek udalaren esku utzitako laguntza-produktuei probetxu emango zion udal-programari, alegia.

Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politika Departamentuak ematen duen zerbitzuaren bidez laguntza-produktuak eskuratzeko prozedura luze joan ohi da, eta zenbait egoeretan berehalako erantzuna eman behar izaten zaie herritarrek. Hala nola, ospitaleko altak, ustekabeen eta bat-batean gertatutako mendekotasunak (iktusak, istripuak...) eta horien antzeko egoeren larritasunaren aurrean, udalak, berehalako erantzuna emateko aukera da programa hau. Zerbitzu hau emanez, lortzen da harik eta Aldundiak eskaerak ebatzi eta produktuak eman arte, pertsona horiei arreta beren etxean ematea.

Esan bezala, 2015 urtean, erabaki zen zerbitzuaren kudeaketa hobetzeko Peñascal S. Kooperatibarekin hitzarmena sinatzea. Horrela, lortu zen laguntza-produktuen biltegi bakarra izatea, mantentze egokia ematea produktuei, garbitasun irizpideak bermatzea eskualdaketa bakoitzean, erantzukizun zibileko estaldura, eta premia egoeran zeuden herritarren berehalako arreta ematea.



Erabaki zen Peñascal S. Kooperatibarekin egitea hitzarmena, bere baitan zituelako produktu hauek kudeatzeko beharrezkoak ziren baliabide edo baldintza guztiak: zerbitzua emateko pertsonala, biltegiratzeko nahikoa espazio fisiko, eta azkenik, produktuen mantenua egiteko ezagutza eta gaitasuna. Gainera, kontuan hartu ziren entitate honek kudeatzen dituen interes orokorreko proiektu guztiak ere: lan-prestakuntzako programak, Eguneko Zentroko eta gizarteratze-enpresako egitasmoak,...

Hitzarmen hori 2016ko martxoaren 14an sinatu zen, eta 2018ko abenduaren 31n amaitu zen guztiz bere indarraldia.

2018an administrazio-kontratuen arautegia indarrean sartu zenetik, urtez-urte lotu behar izan da zerbitzua kontratu txikiaren prozeduraren bidez. Tolosako Udalak zailtasunak izan ditu beharrezkoa den administrazio-prozedura garatzeko, besteak beste, prozedura administratibo zuzenena zein behar duen izan erabaki ezintasunarengatik: eskualdeko izaera, kudeatzeko konplexutasuna, eta lan kargak eta baliabide eskasia, zerbitzuaren kostu txikia eta eskatzen duen prozedura konplexuaren arteko desoreka,... Beraz, Tolosako Udalak azken urteotan egin den hautua izan da zerbitzua bermatzeari lehentasun osoa ematea.

2023ko irailaren 1ean 2023SNSP0001 espedientea abiarazi zen. Espediente hori izapidetze bidean gelditu zen, azterketa juridikoaren eta administrazio baldintzak zehazteko zain, eta beraz, izapidetu gabe itxi egin zen.

2024an 2024SASI0002 espedientea abiarazi zen, baina hura ere ezin izan da momentuz izapidetu, eskualdeko herriekin sinatu beharreko hitzarmena lantzen hastearekin batera, << 168/2023 DEKRETUA, azaroaren 7koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen >> aplikatu beharrekoa ote den aztertze zain.

BIGARRENA.- Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailak, bere zinegotzi delegatuaren onepenarekin, lehenetsi du zerbitzua eskaintzen jarraitzea, zerbitzu hori esleitzeko dagokion udal-espedientea izapidetzen den bitartean, ondoko arrazoi hauengatik:

1. 2014tik udalen esku doantzan utzitako material ugariari erabilera eman zaio, eta horri esker, bat-batean sortutako zaurgarritasun-egoera larriei aurre egiten lagundu zaie zaintza-lan horien zama bere gain hartu behar izan duten senitartekoei, berriazko baliabideak bideratzeko izapideak kudeatu bitartean.
2. Herritarren interesa eta programak duen harrera ona: larrialdi egoeretan irtenbide azkarra eta baliotsua eskaini izan da, izapide gutxiarekin ahalbidetzen dena eta ekonomikoki oso eragin urria duena, mendekotasun egoeran dauden pertsonentzat eta zaintzaileentzat funtsezkoa bihurtzen den momentu batean, alor horretan eskumena duen erakundeak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politika Departamentuak) behar horiei erantzuteko beharrezko izapideak kudeatzen diren bitartean. Kostu txikiarekin herritarrei ematen zaien erantzuna bikaina da, eta oso balorazio ona du zerbitzuak.



3. Zerbitzu honen helburua betetzeko ezinbestekoa da laguntza-tresnak mantentzeko eta kudeatzeko zereginenez arduratuko den zerbitzu-emaila batekin zerbitzua hitzartzea:

- mantenu-lanetan ezagutza
- material lagapenen kudeaketa administratiboa egin
- herritarrak artatu, eta laguntza produktuen jasotzea-entregatzea errazteko laguntza eskaini
- materiala gordetzeko eta lagapenak errazteko espazio zabala ibilgailuekin bertaratzeko modukoa.

Peñascal Kooperatibak baldintza guztiak betetzeko baliabide propioak ditu, eta horrek errazten du gain-kostu haundirik gabe zerbitzuaren kudeaketa bermatzea: beharrezko espazioa bermatzen dute herritarrak gerturatzeko eta tresnen Karga-Deskarga arazoa izan gabe; mantenu lanak egiteko beharrezko materiala eskura dute eskaintzen duten formazio materia dela eta; eta bertan bazterkeria arriskutik aldentzeko formazioprozesuan dauden nerabe eta gazteei zeregina eta praktika bermatzen zaie (Gizarteratze enpresa eta PCPI).

4. Ez da aurreikusten lehia libreko aukera sustatzeak inolako zerbitzu-emailaren interesik sortuko duenik; aldiz, aurreikusten da egungo zerbitzu emaila desagertzeko arriskua, eta ondorioz, zerbitzua ematen jarraitzeko aukera galtzea. Irizten da zerbitzua mantentzeko arautegiaren arabera bideragarria den formula edo modua bideratzeko aukera bermatu bitartean, ezinbestekoa dela egungo zerbitzu emailari eusten jarraitzea.

5. Laguntza-gailuak herritarren zerbitzura egotea da lortu nahi den helburu bakarra.

BIGARRENA.- Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailak, bere zinegotzi delegatuaren onespenezkin, lehenetsi du zerbitzua eskaintzen jarraitzea, zerbitzu hori esleitzeko dagokion udal-espedita izapidetzen den bitartean, ondoko arrazoi hauengatik:

1. 2014tik udalen esku doantzan utzitako material ugariari erabilera eman zaio, eta horri esker, bat-batean sortutako zaurgarritasun-egoera larriei aurre egiten lagundu zaie zaintza-lan horien zama bere gain hartu behar izan duten senitarte-koei, berariazko baliabideak bideratzeko izapideak kudeatu bitartean.
2. Herritarren interesa eta programak duen harrera ona: larrialdi egoeretan irtenbide azkarra eta baliotsua eskaini izan da, izapide gutxiarekin ahalbidetzen dena eta ekonomikoki oso eragin urria duena, mendekotasun egoeran dauden pertsonentzat eta zaintzaileentzat funtsezkoa bihurtzen den momentu batean, alor horretan eskumena duen erakundeak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte



Politika Departamentuak) behar horiei erantzuteko beharrezko izapideak kudeatzen diren bitartean. Kostu txikiarekin herritarrei ematen zaien erantzuna bikaina da, eta oso balorazio ona du zerbitzuak.

3. Zerbitzu honen helburua betetzeko ezinbestekoa da laguntza-tresnak mantentzeko eta kudeatzeko zereginenez arduratuko den zerbitzu-emaila batekin zerbitzua hitzartzea:

- mantenu-lanetan ezagutza
- material lagapenen kudeaketa administratiboa egin
- herritarrak artatu, eta laguntza produktuen jasotzea-entregatzea errazteko laguntza eskaini
- materiala gordetzeko eta lagapenak errazteko espazio zabala ibilgailuekin bertaratzeko modukoa.

Peñascal Kooperatibak baldintza guztiak betetzeko baliabide propioak ditu, eta horrek errazten du gain-kostu haundirik gabe zerbitzuaren kudeaketa bermatzea: beharrezko espazioa bermatzen dute herritarrak gerturatzeko eta tresnen Karga-Deskarga arazoa izan gabe; mantenu lanak egiteko beharrezko materiala eskura dute eskaintzen duten formazio materia dela eta; eta bertan bazterkeria arriskutik aldentzeko formazio prozesuan dauden nerabe eta gazteei zeregina eta praktika bermatzen zaie (Gizarteratze enpresa eta PCPI).

4. Ez da aurreikusten lehia libreko aukera sustatzeak inolako zerbitzu-emailaren interesik sortuko duenik; aldiz, aurreikusten da egungo zerbitzu emaila desagertzeko arriskua, eta ondorioz, zerbitzua ematen jarraitzeko aukera galtzea. Irizten da zerbitzua mantentzeko arautegiaren arabera bideragarria den formula edo modua bideratzeko aukera bermatu bitartean, ezinbestekoa dela egungo zerbitzu emailari eusten jarraitzea.
5. Laguntza-gailuak herritarren zerbitzura egotea da lortu nahi den helburu bakarra.

HIRUGARRENA.- Horiek kontuan izanda, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailaren ardura duen zinegotzi delegatuaren adostasunarekin, Peñascal Kooperatibari eskatu zaio Tolosaldeko udalen laguntza-produktuen biltegiratze eta mantentze zerbitzua eskaintzen jarraitu dezala, eta horrela egin du 2024 urte osoan zehar ere; laguntza horren beharra izan duten herritarrei arreta eskainiz, eta laguntza-tresnen mantenua eta kudeaketa oso egokia eginez.



LAUGARRENA.- Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sailaren iritziz esanguratsua da zerbitzu honek herrian eragin duen onura, onuradun kopurua oso ugaria ez bada ere, larrialdi egoera ugariri eman dielako erantzuna, zerbitzuaren kostu oso baxuarekin.

BOSGARRENA.- Kontuhartzailletza Sailak eskatutakoari erantzunez, *Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko arduradunak ADIERAZTEN DU:*

a.- Peñascal S.L. Kooperatibak egoki eman du zerbitzua, nola materialaren mantenuari dagokionean, hala premia egoeran aurkitu diren herritarrei arreta eman, eta beharrezko materiala entregatu eta jasotzerakoan ere, laguntza-produktuen kudeaketa eraginkorra eta kalitatezkoa eginez eta eskualdeko herritar eta familia ugariri sortutako premiazko beharrei erantzun azkarra emanez.

b.- Peñascal S.L. Kooperatibak emandako prestazioa merkatu-prezioarekin bat dator, edo hobe esanda, merkatu-prezioaren azpitik dago. *Honi dagokionean, argitu behar da zaila dela maila honetako beste zerbitzu bat topatzen alderaketa hori egiteko; hain zuzen ere, Tolosaldean, eskualde mailan oso modu solidarioan eta irabazi asmorik gabeko lankidetzaren egitasmoaren oinarriarekin sortu zelako, udalen esku utzitako materialaren aprobetxamendua eta erabilera egokia, eta premia egoeran dauden herritarren eskura jartzea izanik lehentasun osoa.*

Kostu honek ez du barne hartzen materialaren erosketarik, inbertsiorik, berrikuntza egitasmorik,... (horretarako eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiarena baita). Materiala gordetzeko erabiltzen den azaleraren erabilera, laguntza-produktuen mantenu arrunterako beharrezko materiala eta esku-lana, herritarren harrerarako pertsonalaren dedikazioa, emandako zerbitzuaren kudeaketa administratiboa egitea, erabiltzen den espazioaren hornidurak,... ordaintzen dira goian aipatutako fakturen bidez.

Peñascal SL Kooperatibak aurkeztutako fakturek ez dute emandako zerbitzuaren kostu erreala jasotzen, Peñascalek berezkoak dituen baliabide pertsonal, material eta espazioarenak baliatzen direnez, horien guztien estimazioa delako Tolosako Udalari fakturatzen zaiona, eta ez merkatuko prezioen arabera.

Zerbitzu honetarako erabiltzen den azalerari dagokion alokairuaren, horniduren, egun osoan zehar arretarako pertsonalaren dedikazioa, ekipamendu informatikoak... kontuan izanez gero, askoz garestiagoa izango litzateke zerbitzua.

c.- 2018 urtetik zerbitzuaren prezio bera mantendu du Peñascal S.L. Kooperatibak. Hornidurei eta pertsonal gastuei dagokienean kostuen garestitzea egon bada ere, prezioak bere horretan uztea eta prozedura gehiago ez zailtzea erabaki du zerbitzu emaileak.



Esan bezala, zerbitzu honen kontratazioaren oinarrian zerbitzuarekiko lankidetzaren egitasmoa dago, eta ez irabazi asmoa. Zerbitzua eskaintzeak eragiten dien gastuaren konpentsazioa da aurrekontuan jasotzen duena zerbitzu-emaileak. Horren ondorioz, 2018urtetik aurrekontu bera aurkeztu du enpresak: 400€+BEZ hilabeteko.

d.- Tolosako Udalaren eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailaren ardura da zerbitzu honen formalizazioan egoten ari den atzerapena, inolaz ere ez dagokio inolako ardurarik zerbitzu emaileari.

Hain zuzen ere zerbitzu honen kudeaketa-esleipena arautegiaren arabera izan dadin ahaleginetan dihardu sailak 2019 urtetik. Teknikari honek hainbatetan landua du zerbitzu honen kudeaketa indarrean dagoen arautegira egokitzeko beharra, nola enpresa kudeatzailearekin, hala zerbitzuan parte hartzen duten gainerako herrietako gizarte langileekin, eta Tolosako Udalaren barne koordinazioetan ere.

Esan bezala, 2019 urteaz geroztik behin eta berriz egin da saiakera, baina ezinezkoa izan da beharrezkoak diren espedienteak garatzea. Lan kargak, Udal mailako koordinazioetan izandako aholkularitza eta ikuspuntu tekniko desberdinak, eta bestalde, eskualdeko gainerako herriekin egin beharreko koordinazioak prozedura zailtzen dute, eta zerbitzuak ongi funtzionatzeko, kostu txikia izateak, eta Udalaren eskumen zuzenekoak ez izateak, kontratuaren formalizazioari lehentasuna ez ematea ekarri dute.

Horiek horrela, ordea, lehenetsi da herritarrei zerbitzua ematea, hain zuzen ere, herritarrek dohaintzan material hori Udalari utzitakoan horixe zelako herritarren nahia: tresna horien premian dauden beste herritarrek baliatu ahal izatea, eguneroko bizi baldintzak arintzeko eta duintzeko. Eta horrexegatik, arduradun politikoaren aldeko iritziarekin, eskatu zaio Peñasgal Kooperatibari zerbitzua ematen jarraitzeko, Udalak kontrakoa esan bitartean. Asmo horrekin, 2023ko irailean 2023SNSP0001 espedientea ireki bazen ere, prozedura hori ez denez egokiena, hori itxi, eta 2024ko urtarrilaren 19an 2024SASI0002 espedientea ireki behar izan zen. Gaur egun, eskualdeko herriekin adostu beharreko hitzarmen proposamena bideratzen ari gara. Bitartean, Peñasgal Kooperatibak laguntza teknikoaren zerbitzua ematen jarraitzen du, herritarrei zerbitzua ematea lehenetsiz.

Era berean, adierazi nahi da zerbitzu kudeatzaileak ulertzen duela egoera, eta adierazi duela prestutasuna dagokion prozedura administratiboa garatzeko.

Aurreko guztia aintzat harturik, hona hemen nire



PROPOSAMENA

LEHENENGOA: *Peñascal Kooperatibak 2024 urtean zehar eskaini duen zerbitzua errekonozitzea, eta egindako lanagatik kooperatibak aurkeztutako ordainagiriak onartzea eta ordaintzea: 2024-FAKT-001901-00 ; 2024-FAKT-003186-00 ; 2024-FAKT-004637-00 ; 2025-FAKT-000061-00.*

BIGARRENA: Zerbitzuaren kostu osoa Tolosako Udalak bere gain hartzea, kontuan izanda eskualde mailan eman beharreko zerbitzuaren inguruko erabakiak eta kudeatzeko administrazio prozeduren inguruko erabakiak Tolosako Udalean eztabaidatu eta hartu direla, eta ezin izan dela kudeatu eskualdeko gainerako Udalekin lankidetzaz hitzarmenik.

HIRUGARRENA: Kostua da 4.800€koa, BEZarekin 5808€koa. Ordainketa 2025 udal aurrekontuko 0500.0227.04.23100 partidaren kargura egingo da.

LAUGARRENA: Lehentasunez izapidetzea zerbitzua esleitzeko espediente, zerbitzua eskaintzeko kontratua legearen arabera arautua izan dadin premiaz, eta ahal den neurrian, zerbitzuan etenaldirik egin gabe.

BOSGARRENA: Zerbitzuan etenaldirik ez dela egongo bermatzeko, kontratua legearen araberako prozedura bidez esleitu bitartean, Peñascal SL Kooperatibari eskatzen zaio zerbitzua ematen jarraitzeko, eta, ondorioz, zerbitzu hori ematetik sortzen diren gainerako fakturak ere prozedura honen bidez onartzea eta ordaintzea, beti ere, oraingo egoera mantentzen dela, zerbitzua eman dela eta zerbitzuaren prezioa orain arteko berbera izan dela egiaztatzen bada.

SEIGARRENA: Interesatua eta Kontuhartzailatza Saila jakinaraztea.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, alkate honek honako hau

EBAZTEN DU :

LEHENA.- Onartzea eta ordaintzea ondoko fakturak: : 2024-FAKT-001901-00; 2024FAKT-003186-00; 2024-FAKT-004637-00 ; 2025-FAKT-000061-00

BIGARRENA.- Kontuhartzailatza Sailari jakinaraztea, beharrezko neurriak har ditzan.



EGINBIDEA:

Eginbide hori jartzen dut nik, idazkari akzidentalak, jasota gera dadin dekretu honen bidez ordaindu beharreko fakturak zerbitzu errepikakor bati dagozkiola, eta zerbitzu horrentzat ez dagoela kontraturik, eta, beraz, urratu egin dituela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aginduak, kontratuaren lizitazio egokia eskatzen baitu. Kontratu errepikakorra denez, ezin izango da inola ere kontratu txikiaren formula erabili, eta aipatutako legean aurreikusitako edozein prozeduraren bidez lizitatu beharko da.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze errekursoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARI AKZIDENTALA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2025/665 Dekretua: 2024/81 faktura zerrendak.

2025KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailatza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

81. zenbaki duena, 686,00 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek



ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

81. zenbaki duena, 686,00 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren ordeztasun, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2025/677 Dekretua: 2024/82 faktura zerrendak.

2025KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailatza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzat etsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

82. zenbaki duena, 1.358,39 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek



ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

82. zenbaki duena, 1.358,39 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren ordeztu, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Antton Rivero Urbistondo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2025/685 Dekretua: 2025/2 faktura zerrendak.

2025KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailletza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzat etsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

2. zenbaki duena, 22.593,59 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:



2. zenbaki duena, 22.593,59 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren ordeztu, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Antton Rivero Urbistondo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2024/1933 Dekretua: 2025/3 faktura zerrendak.

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Kontuhartzailletza teknikariak egindako txostenean ondorengo hau zehaztu zuen:

AURREKARIAK

“Asociación Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa” elkarteak aurkeztutako ondorengo fakturak jaso dira, guztira 12.490,57 eurokoak, 0700.227.07.311.00 2024 aurrekontu partidaren kargura:

Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
018/2024	2024/02/28	852,45	Otsaileko bilketa zerbitzua
029/2024	2024/02/28	997,04	Hileko kuota finkoa: otsaila
044/2024	2024/04/04	997,04	Hileko kuota finkoa: martxoa
040/2024	2024/04/30	1.342,41	Apirileko bilketa zerbitzua
059/2024	2024/04/30	997,04	Hileko kuota finkoa: apirila
050/2024	2024/05/31	1.653,65	Maiatzeko bilketa zerbitzua
074/2024	2024/05/31	997,04	Hileko kuota finkoa: maiatza
064/2024	2024/06/30	426,22	Ekaineko bilketa zerbitzua
089/2024	2024/06/30	997,04	Hileko kuota finkoa: ekaina
077/2024	2024/07/30	2.233,60	Uztaileko bilketa zerbitzua
104/2024	2024/07/31	997,04	Hileko kuota finkoa: uztaila.

Guztira: 12.490,57

Gastuak kontratu txiki moduan izapidetu dira.

ESKU0238f44b-c570-412e-9dc6-8b226267a492



OINARRI JURIDIKOAK

1. 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa, bere IV TITULUA: KONTUHARTZE-KONTROLA.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiko 32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.
3. 2021/7/29 datako toki erakundearen osoko bilkuraren erabakia, aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea eta espedienteetan egiaztatu beharreko baldintzak onartzen dituen.

JAKINARAZTEN DUT

Lehena.- *Obligazioen onarpena aurretiazko kontu-hartzearen menpe daude, abenduaren 27ko Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen 32/2018 Foru Dekretuaren 18. artikuluen arabera.*

Organo kontu-hartzaileak egiaztatu beharko du obligazioa onartzeko beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen direla.

Bigarrena.- *Kontu-hartzaile akzidentalak, espediente bereko 2024ko otsailaren 6ko fiskalizazio txostenean, adierazi zuen, aipatutako elkarteak aurkeztu zituen 2023 urteko irailetik abendura bitarteko animalien bilketa zerbitzuaren 4 fakturak ez zirela behar bezala izapidetu (2024FISK0002):*

«...gastua kontratu txiki bidez izapidetu da, SAREKO aplikazioan egindako eskarien bidez. Baina, aurkeztutako faktura hauek, eta baita urtean zehar aurkeztu diren gainontzekoak ere, prestazio errepikakor baten ondorio dira, eta Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituen 9/2017 Legearen 28.8 artikuluen arabera, prestazio horiek ezingo dute urtebete baino gehiago iraun. Kontratu txiki baten bidez ezin bada gastu hau tramitatu, aldez aurretik fiskalizatu behar da.

«2.-Zerbitzu honi buruz 2023ko otsailaren 22an egindako fiskalizazio 39/2023 txostenean eta 2023ko martxoaren 1eko 2023/466 Alkatetza Dekretuan Idazkariak egindako eginbidean adierazten zen zerbitzu hau ezin zela kontratu txikien bidez tramitatu eta lizitazio prozedura hasi beharra zegoela. Zerbitzuaren lizitazioa abian jartzeko denbora emate aldera, 2023an ez da txostenik egin "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" Elkarteak aurkeztutako fakturei buruz. Baina, egia esan, nahitaezko legezprozeduraren arabera izapidetzen ez den zerbitzu bat ematen jarraitzen dugu. Beraz, lizitazioa lehenbailehen martxan jartzea derrigorrezkoa da.»



Txostenaren emaitza erreparo etenarazlea izan zen.

Hirugarrena.- *Udalbatzak, 2024ko otsailaren 29an, Ohiko Osoko bilkuran, onartzea erabaki zuen "Asociación Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa" elkartearen kredituen judizioz kanpoko aitortpena. Erabaki honen bidez ordaindu ziren 2023 urteko irailetik abendura bitarteko fakturak.*

Laugarrena.- *"Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" Elkarteak animaliak biltzeko zerbitzuari dagozkion beste 11 faktura aurkeztu ditu eta horien gastuak zuzen izapidetu gabe jarraitzen du. Izan ere:*

- prestazioak errepikakorrak dira eta urtero behar berari erantzuten diote, kontratu txikien iraupena urtebetetik beherakoa denean, luzatzeko aukerarik gabe, 9/2017 Legearen 29.8 artikularen arabera.*

Espedientea legea jarraituz izapidetu ez denez, ulertu behar da ez dela egin eginkizun kontu-hartzailea, eta abenduaren 27ko Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen 32/2018 Foru Dekretuaren 28. artikulua aplikatu behar da. Honela dio artikulua honek:

"28. artikulua. Eginkizun kontu-hartzailea ez betetzea.

1. Foru dekretu honetan jasotakoaren arabera eginkizun kontu-hartzailea derrigorrezkoa izanik bete ez denean, ezin izango da ez obligazioa onartu, ez ordainketa izapidetu eta ez jarduketa horien aldeko kontu-hartzea egin, harik eta ez-betetzea artikulua honetan jasotakoari jarraituz ezagutu eta konpondu arte.

2. Baldin eta espediente bat ezagutzean organo kontu-hartzaileak eginkizun kontuhartzailea bete ez dela erreparatzen badio, horren berri emango dio espedientea hasi duen agintariari eta, aldi berean, bere iritzia emango du proposamenaz, txosten hori jarduketei erantsita, betiere toki entitateko lehendakariak prozedurarekin eta, bidezkoak izanez gero, gainerako jarduketekin jarraitzea erabaki ahal izateko.

Baldin eta eginkizun kontu-hartzailea ez bada betetzen osoko bilkuraren eskumeneko obligazio edo gastuei dagokienez, toki entitateko lehendakariak osoko bilkuraren erabakiaren menpe jarriko du prozeduraren eta, bidezkoak izanez gero, gainerako jarduketekin jarraipena.

Txosten horrek ez du izango eginkizun kontu-hartzailearen ariketaren izaerarik, salbu eta eragozpena azaldu bada ordainketa aginduen jatorri diren egintzak fiskalizatu ez direnean. Txostena foru dekretu honetako 15. artikulua 6. apartatuan aipatutako zerrendan sartuko da, eta gutxienez alderdi hauek barnean hartuko ditu:

a) Gastua xehetasunez deskribatzea. Hura identifikatzeko behar diren datu guztiak sartuko dira, eta gutxienez honako hauek: organo kudeatzailea, gastuaren xedea, zenbatekoa, izaera juridikoa, noiz egin den, aurrekontu kontzeptua eta zer ekitaldi ekonomikotara egotziko den.



b) Adieraztea zer kasutan ez den araudia bete, informatzen duen organo kontu-hartzailearen iritziz, derrigorrezko aurretiazko fiskalizazio edo kontu-hartzea egin gabe egintza eman zenean, urratutako legezko xedapenak espresuki aipatuta.

c) Egiaztatzea prestazioak benetan gauzatu direla eta haien prezioa merkatuko prezioarekin bat datorrela. Horretarako, kontuan hartuko dira organo kudeatzaileak aurkeztutako balorazio eta frogagiriak, betiere organo horrek beharrezkoak diren aholku edo txosten teknikoak eskuratu behar izanik.

d) Egiaztatzea aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela gastua ordaintzeko.

e) Begiratzeari aukera ote dagoen eta komeni ote den ordenamendua urratuta emandako egintzak berrikustea. Hori guztia egitea organo kontu-hartzaileari dagokio, betiere aintzat hartuta prestazioak egin diren, haiek zer izaera duten eta nola baloratzen diren, bai eta legea bete den ere. Horretarako, kontuan hartuko da, egintzaren berrikuspenaren emaitza gauzatzeko, kalte-galeren ordainketaren bidea erabiliko dela, betiere Administrazioa bidegabe aberastearen edo bere ardurapeko obligazioa ez betetzearen ondorioz berari dagokion ondare erantzunaren ondorioz. Hortaz, ekonomia prozesaleko arrazoiak direla eta, berrikuspen hori egiteko eskatzea bidezkoa litzateke bakarrik uste denean kalteordain horien zenbatekoa txikiagoa izango dela proposatzen dena baino.

3. Biztanle kopuru handiko udalerrietan, obligazio eta gastuen inguruan esleituta dagoen eskumenaren arabera, osoko bilkurako lehendakariak edo tokiko gobernu batzordeak erabakiko du prozedurarekin eta bidezkoak diren gainerako jarduketekin jarraitu edo ez.

Ebazteko eskumena tokiko gobernu batzordearena denean, espedientearen tokiko gobernu batzordeari bidaltzeko ardura izango da espedientearen izapideaz arduratzen den organoari dagokion edo organismo autonomoa edo, hala badagokio, partzuergoa adskribatuta duen arloko departamentu edo zinegotziaren organo titularrena, betiere eskumen hori eskuordetu ahal izan gabe.

4. Osoko bilkurako lehendakariak edo tokiko gobernu batzordeak aldeko erabakia hartzen badute ere, egon daitezkeen erantzukizunak eskatu ahal izango dira.”

Bosgarrena.-Kontu-hartzailetzako eginkizuna nahitaezkoa izanda adierazitako espedientearen, eta gastua baimentzeko aurretiazko fasean eginkizun hori alde batera utzi denez, ezin izango da obligazioa onartu, ezta jarduketa horien aldeko kontu-hartzea egin, ez-betetze hori ezagutu eta konpondu arte.

Seigarrena.- Eten egiten da, ekonomia eta finantza alderdietan, nahitaezko funtzio kontuhartzailea alde batera utzita emandako egintzaren eraginkortasuna.

Zazpigarrena.-32/2018 Foru Dekretuaren 28.2 artikulua aipatzen dituen alderdiei dagokienez:



a. *Gastuaren deskribapen zehatza*

Ondorengo taulan xehetasunez deskribatzen da egindako gastua

Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
018/2024	2024/02/28	852,45	Otsaileko bilketa zerbitzua
029/2024	2024/02/28	997,04	Hileko kuota finkoa: otsaila
044/2024	2024/04/04	997,04	Hileko kuota finkoa: martxo
040/2024	2024/04/30	1.342,41	Apirileko bilketa zerbitzua
059/2024	2024/04/30	997,04	Hileko kuota finkoa: apirila
050/2024	2024/05/31	1.653,65	Maiatzeko bilketa zerbitzua
074/2024	2024/05/31	997,04	Hileko kuota finkoa: maiatza
064/2024	2024/06/30	426,22	Ekaineko bilketa zerbitzua
089/2024	2024/06/30	997,04	Hileko kuota finkoa: ekaina
077/2024	2024/07/30	2.233,60	Uztaileko bilketa zerbitzua
104/2024	2024/07/31	997,04	Hileko kuota finkoa: uztaila.
Guztira:		12.490,57	

b. *Arauak ez betetzearen azalpena*

Kontuhartzailletza honen iritziz, lehen identifikatutako gastuak txosten honen lehen jakinarazpenean eta eranskinean adierazten diren akatsak ditu.

c. *Prestazioak egin direla eta prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela egiaztatzea*

Saileko arduradunak txosten bat egin beharko du, egiaztatuz, prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela.

d. *Egiaztatzea aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela*

Gastuaren zenbatekoa ordaintzeko aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa dago 0700.227.07.311.00 2024 aurrekontu partidan, lotura juridikoari dagokionez (AD2821/2024) elkarteak aurkeztutako hamaika fakturei dagokien gastua onartzeko. e) Egintzak berrikusteko aukera eta komenigarritasuna

Ordenamendua urratuz emandako egintzak berrikusteko aukerari eta komenigarritasunari dagokionez, aurreko c) puntuan aipatutako organo kudeatzaileak egiten duen txostenaren arabera izango da.



Saileko arduradunak adierazten badu dagozkion prestazioak egin direla eta merkatuko prezioari egokitzen zaizkiola, kontuan hartu beharko da kalteordainaren zenbatekoa bat datorrela fakturaren edo gastuaren zenbatekoarekin eta, beraz, ez dela beharrezkoa ESKU57759879-2cd5-4242-8488-9ee7bf5ef557 egintza berrikusteko eskatzea.

Zortzigarrena.- Alkateari dagokio erabakitzea prozedurak, eta kasuan kasu dagozkion jarduketek eta erantzukizunek, jarraituko duten ala ez.

Bederatzigarrena.- Aurrekoari kalterik egin gabe, udalaren alde bidegabeko aberastea gertatu bada, eta sailaren arduradunak egiaztatzen badu prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela, egindako prestazioak "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" elkarteari ordaindu behar zaizkiola uste dut, kredituaren judizioz kanpoko aitorten bat izapidetuz. Kreditu egokia eta nahikoa dagoenez, honen eskumena Alkatearena da.

Hamargarrena.- Txosten hau bidali behar zaio alkateari, jakinaren gainean egon dadin, eta organo kudeatzaileari, dagokion txostena aurkez dezan, prestazioen gauzatzeari buruz eta horien prezioa merkatuko prezioari egokitzen zaion ala ez adieraz.

Hamaikagarrena.-Txosten honetan aipatzen diren fakturez gain zerbitzua lizitatu bitartean udalak animalien bilketa zerbitzuaren faktura gehiago jasoko balitu, horietan ere eginkizun kontu-hartzailea ez betetze egoera legoke.

BIGARRENA.- Kontuhartzaitzak eskatu bezala, udaltzainburuak igorritako txostenean zehazten du prestazioak benetan gauzatu direla eta haien prezioa merkatuko prezioarekin bat datorrela.

Horiek horrela, alkate-udalburu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Txosten honetan aipatzen diren fakturaz gain zerbitzua lizitatu bitartean udalak animalien bilketa zerbitzuaren faktura gehiago jasotzen baditu, "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" elkarteari ordaintzea.

BIGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Kontratazio Unitateari.



Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertzeerrekurtoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurto hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekursoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzierrekurtoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurto hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

>> EGINBIDEA

Tolosako Udaleko idazkari akzidentalak eginbide hau egin du, honako hau jasota gera dadin:

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak hau zehazten du 70.3 artikuluan: "3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean: a) Oinarria kredituaren askiezintasunean edo proposatutakoaren ezegokitasunean datzanean. b) Ordainketa-aginduak sortu dituzten egintzak fiskalizatu ez direnean. c) Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean. d) Ingera obra, hornidura, eskuraketa eta zerbitzuen egiaztapen materialetatik sortzen denean.". Halaber, artikuluko bereko 4. idatz-zatiak hau zehazten du: "Eragozpenak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, toki entitateko lehendakariak ebatzi beharko du desadostasuna; eta ebazpen hori betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.". Era berean, artikuluko bereko 6. eta 7. idatz-zatiek hau zehazten dute: "6. Kontu-hartzailetzako organoak txostena



TOLOSAKO
UDALA

2025IGBA0005

helaraziko dio Udalbatzarrari edo organo baliokideari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru sarreraren arloan atzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe. Apartatu honetan jasotakoak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai zerrendan. Toki entitateko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du Udalbatzarrean edo organo baliokidean. 7. Kontu-hartzailetzako organoak, toki entitateko lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak eta Udalbatzarrak edo organo baliokideak hartutako ebazpen eta akordio guztien inguruan; halaber, diru sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, toki entitatearen justifikazio txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio".

Hortaz, idazkari akzidental honek adierazi nahi du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera, beharrezkoa izango dela kontuhartzailetzako organoak txostena helaraztea Udalbatzarrari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan. Halaber, alkate-lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra alkate-lehendakariak eta Udalbatzak hartutako ebazpen eta akordio guztien inguruan.

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguriá Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 09:15ean.

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IGBA0006-2025/03/18ko akta/2025/03/18ko akta ()